

Gida, teknologia digitalen erabilera arduratsua lortzeko

Gero eta konektatuago dagoen gizartean bizi gara, Internetek eta sare sozialek protagonismo handiagoa dute, teknologia gero eta eskuragarriagoa da eta bilakatzen jarraitzen du: smartphonei esker, edozein sar daiteke Interneten eta, gainera, Interneterako sarbidea duen lehen gailu mugikorra eskuratzeko adina jaisten doa. Eskaintzen dituzten abantailak direla-eta, gailu mugikorren eta sare sozialen erabilera hainbat esparrutan zabaldu da, eta, argi eta garbi, kirol-esparruan ere bai. Bestalde, administrazio publikoen ardura da teknologia digitalen erabilera arduratsua sustatzea, baita jostaketa, aisia eta denbora libreko zuzendutako aplikazio berrienak ere, batez ere gazte eta nerabeen artean. Oso zabalduta badaude ere, baliabideak falta dira erabilera arduratsua eta segurua ezagutzeko, lehentasuna izan behar baitu adingabeez hitz egiten dugunean.